



# Gazta eta abelgorriak dira gaurko protagonistak

**TOLOSA ▶** Beotibarren XVIII. Gazta Lehiaketa izango da goiz osoan zehar, Lizardi elkarteak antolatuta

**FERIALEKUAN ▶** Abelgorrien XXXV. Lehiaketa izango da goiz partean Ferialekuan ▶ 2,3

Ezkonduek bere eguna izango dute gaur jaietan

Scalestria lasterketa ere izango da ▶ 4

## Ibiur urtegi inguruko eta herrirako bide berriak ari dira egiten

**BALIARRAIN ▶** Maiatzerako bukatuta egotea espero dute; herrirako bideak 1.124 metro eta %10,5eko aldapa izango du ▶ 5

OLAJA ESKITXABEL



## Jendea gustura atera zen gerrari buruz Tabarren hitzalditik

Maxurrenearen aldeko ekitaldia izan da ▶ 7

## Urtekari berria argitara

'Aidanean' aldizkariak herriko berriak ditu ▶ 6

## Mintegiaga gogoratu dute

Giza katea bi urte bete dituelako kartzelan ▶ 6

## NAIKARI ileapaindegia



Orain!!

Look-a aldatzen dugu !!

>> San Frantzisko Ibilbidea, 19 zk. behean - T 943 67 57 69 - 20400 TOLOSA \*\* conchigarbi1@euskalnet.net

AZOKAK ▶

# Ganaduzaleen eta gaztagileen erreinu

Beotibar pilotalekuan izango da gaur XVIII. Gazta Lehiaketa; Ferialekuan, berriz, Probintziako XXXV. Abeltzari Lehiaketa

L. MONTES - I. ETXEBESTE

Tolosako XVIII. Gazta Lehiaketa eta Probintziako XXXV. Abeltzari Lehiaketa egingo dituzte gaur, goizean hasi eta eguerdira bitarte, Beotibar pilotalekuan eta Ferialekuan, hurrenez hurren. Lizardi Kultur Elkarteak antolatuta izango da Tolosako XVIII. Gazta Lehiaketa. XV. Juanito Zabala Memoria-ira ere deitzen diote txapelketa

horri, Zabala elkartearen bazkide eta lehiaketaren antolatzaille izan zelako zendu zen arte. Tolosako Udalarren laguntza du Lizardi Kultur Elkarteak ekimena antolatzeko.

Urteroko moduan, oinarri batzuk bete behar dituzte lehiakideek txapelketan parte hartu ahal izateko. Esaterako, latxa ardi gazta antzinako eran egiten duten artzain guztiek izango dute izena emateko au-

kerak. Txapelketan parte hartu nahi dutenek Beotibar pilotalekura joan beharko dute izena eman ahal izateko: 09:00etatik 10:00etara jasoko dituzte antolatzaille lehiakideen datuak, eta gaztaren ordainketa orduantxe egin beharko dute partaideek —kilo 10 euro ordaindu beharko dute—, eta aurkeztutako gaztak kilo bat eta bi kilo bitartekoa izan beharko du, ezinbestean.

Bestalde, gaztagileak artzaina izan beharko du, eta gazta egiteko Osasun Erregistroa izatea beharrezkoa izango da. Artzainak ehun ardi latxaren jabe izan beharko du gutxienez, eta, gainera, aurkezten duen gaztak artzainak berak egindakoa izan beharko du. Era berean, gazta bakarra aurkeztu ahal du gaztagile bakoitzak.

Antolatzaille adierazi dutenez, epaimahaia 10:30etik aurrera hartuko du erabakia, eta, ondoren, sariak banatuko dituzte pilotalekuan bertan. Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango dela, eta gaztak jasoko diren mahai horretan teknikariak egongo direla jakinarazi dute Lizardikoek, halaber. Saritu gabeko gaztak, berriz, bertara joaten diren artean banatuko dituzte, herri-tarrek dastatu ditzaten.

## Abeltzariena, Ferialekuan

Probintziako XXV. Abeltzari Lehiaketa, berriz, Ferialekuan egingo dute. Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen du txapelketa urtero, Tolosako Udalarren eta Kutxaren laguntzarekin. Lau talde nagusitan banatuko dituzte abeltzariak betiko moduan, eta talde bakoitzekoak beren mailakoekin lehiatuko dira, beraz: Suitza arrazakoak, Pirenaika arrazakoak, Blonda arrazakoak eta Limousina arrazakoak izango dira.

Suitza arrazakoaren artean, 18



Abeltzari Lehiaketa egingo dute gaur, goizean hasi eta eguerdira bitarte, Ferialekuan.

## SARIAK ▶



lazio Gazta Lehiaketako irabazleak, sari banaketan. ALONIA IPINTZA

Tolosako XVIII. Gazta Lehiaketa eta Probintziako XXXV.

Abeltzari Lehiaketa egingo dituzte gaur, goizetik eguerdira bitartean, Beotibar pilotalekuan eta Ferialekuan, hurrenez hurren. Bertan parte hartzen duten lehiakideek honako sariak eskuratu ahal izango dituzte:

## GAZTA LEHIAKETA

**Lehenengoa.** 750 euro eta garaikurra.

**Bigarrena.** 360 euro eta garaikurra.

**Hirugarrena.** 240 euro eta garaikurra.

**Laugarrena.** 180 euro eta garaikurra.

**Bosgarrena.** 120 euro eta garaikurra.

**Tolosaldeko lehen saikatuak.** 90 euro eta plaka.

## ABELGORRI LEHIAKETA

### ▶ Atal bakoitzekoak.

**Lehenengoa.** 225 euro eta garaikurra.

**Bigarrena.** 190 euro eta garaikurra.

### ▶ Bereziak.

**Pirenaika.** Pirenaika arrazako bururik egokienarentzat, HEBE saria eta 225 euro.

**Arraza guztiak.** Arraza bakoitzean etekin handiena eman duen behiarentzat, 225 euro eta diploma.

### ▶ Diru laguntzak.

**Urrixkak.** 8 eta 12 hilabete bitartekoak 150 euro jasoko dute; 12 hilabetetik gorakoak eta antzu daudenek 180 euro eta ernai daudenek 210 euro.

**Idiskoak.** 8 eta 14 hilabete bitartekoak 210 euro, eta 14 hilabetetik gorakoak jabeek 300 euro jasoko dituzte.

eta 30 hilabete bitarteko bigararak (ume egin gabeak), 2 urte eta 4 urte eta erdi bitarteko behi gazteak (ume egindakoak) eta 4 urte eta erditik gorako behiak (ume egindakoak) eta 4 urte eta erditik gorako behiak (ume egindakoak) banatuko dituzte. Pirenaika arrazakoaren artean 10 eta 20 hilabete bitartekoak (ume egin gabeak), 20 eta 30 hilabete bitartekoak (ume egin gabeak), 2 urte eta erdi eta 5 urte bitarteko behi gazteak (ume egindakoak) eta 5 urtetik gorako behiak (ume egindakoak) ezberdindu dituzte.


Blonda arrazakoaren artean 12 eta 24 hilabete bitarteko bigararak (ume egin gabeak), 2 urte eta 3 urte bitarteko bigararak, 3 urte eta 5 urte bitarteko behi gazteak (ume egindakoak) eta 5 urtetik gorako behiak daude, eta Limousina arrazakoak beste lau taldetan banatu dituzte antolatzailleek: 12 eta 24 hilabete bitarteko bigararak (ume egin gabeak), 24 eta 36 hilabete bitarteko bigararak (ume egin gabeak), 3 urte eta 4 urte eta

erdi bitarteko behi gazteak (ume egindakoak) eta 4 urte eta erditik gorako behiak (ume egindakoak), hain zuzen ere.

Abeltzari Lehiaketan parte hartu nahi dutenek ere oinarri batzuk bete beharko dituzte. Besteak beste, ezinbesteko izango da osasun-txartela indarrean daukaten azientak izatea, eta osasunketa —gehinez ere hilabete bat aurretik— egina izanaren ziurtagiri ofiziala edukitzea. Abereak garraiatzeko baimena ere eskatuko diete partaideei.

Lehiaketan parte hartu nahi dutenek 08:00ak baino lehen eraman beharko dituzte abeltzariari Ferialekura, eta izena emateko orriak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Abeltzaintza Zerbitzuan eskatu beharko dituzte lehiakideek, era berean. Zerbitzu horrek alde aurretik onartutako azientek baino ez du parte hartzerik izango lehiaketan.

Aitzitik, Gipuzkoan jaiotako eta hazitako bigantxa eta idis-



HITZAK zozketatutako *leitor Zinemán* astebukaera honetan 'GARFIELD' filma ikusteko bi sarreraren irabazlea: **JOSE MARI ARANA (TOLOSA)**

GUTUN@K




**Aralar alderdia, Gerontologikoko langileekin**

Aralar alderdi politikoa txalotu egiten ditu Tolosako Gerontologikoko langileek aurrera eraman dituzten mobilizazioak eta lanuzteak. Tolosako Gerontologikoko langileek beren borrokoari esker lortu dute gelditzea Foru Aldundiaren aldetik inposatu nahi zitzaizen lehiaketa berria eta horrek zekarren lan baldintzen okerragotzea. Horrexegatik, Aralar-ek zorian eman nahi dizkie Gerontologikoko azpikontratutako langileei, lan baldintza duinen aldeko gatazka horretan erakutsi duten adorea-arengatik.

Administrazioak jarraitzen du bere politika neoliberala eta merkantilista zerbitzu sozialetan ezarri nahian. Helburua argi dute: gizarte babeserako baliabide guztien pribatizazioa eta sektorean jarduten langileen esplotazioa eta prekarizazioa. Kasu honetan, Foru Aldundiak eman du pauso bat atzera eta oraingoz errespetatuko ditu langile borraraki esker lortutako hobekuntzak. Baina erne jarraitu beharko dugu, zorritzarrez eraso berriak etortzeko arriskua ez baita desagertu. Hala eta guztiz ere, poztu egiten gara oraingoz honetan lortu den garai-pan txikiarengatik.

ARALAR BATZARKIDE TALDEA  
GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK



publizitatea:  
publi@iragarri.net  
943 30 40 30

Euskaldunok behar dugun  
**berria**

IKASTAROA

**Yoga ikastaroa ostiraletan, HHI-k antolatuta**

Tolosako Helduen Hezkuntzako (HHI) Ikasleen Elkarteak yoga ikastaroa antolatuta du. Ostiraletan izango dira eskolak, eta bi ordutegi dau- de aukeran: goizez, 10:30etik 12:30era; eta arratsalde- z, 17:30etik 19:30era. Izena eman nahi duenak Helduen Hezkuntzara jo behar du (Igaralde, 23. 943 67 26 60). Informazio eta argibide ge- hiago ere jasoko ditu bertan.

HEZKUNTZA

**Ikasturte hasierako bilerak Hirukiden**

Urtero legez, Hirukide ikas- tetxeak ikasturte hasierako bileretara deitu ditu ikasleen gurasoak. Etzi, astelehenean, izango dira lehendabizikoak: Haur Hezkuntzako (4 urte) haurren gurasoak 17:30ean elkartuko dira, Hirukide Je- suitinetan. Eta egun eta leku berean, baina 18:30ean, Le- hen Hezkuntzako 6. mailako haurren gurasoek dute hi- tzordua.

INAUTERIAK



Inauteriei buruzko lehen bilera egingo dute asteartean. HITZA

**Jai Batzordearen bilera asteartean**

Jai Batzordeak bilerara deitu du Inauterien inguruan hitz egite- ko. Asteartean, hilak 5, izango da batzarra, 19:30ean, Kultur Etxe- an. Herritar guztiak gonbidatuta daude.

DANTZA

**Udaberri dantza taldean zabalik da izen-ematea**

Udaberri dantza taldean ari- tu nahi duten haurrek egu- notan dute izena emateko au- kera. Horretarako, astezkene- an, hilak 6, dantza taldearen egoitzara —Igarondo igerile- kuaren alboan— joan behar da, 20:00etatik aurrera. Es- kolak hilaren 9an hasiko dira, eta larunbatetan izango dira. Helduek ere dantzan hasteko aukera dutela gogo- ratu dute Udaberrikoek.

IKASTAROA

**Merkatariei zuzendutako ikastaroak**

Eusko Jaurlaritzako Indus- tria, Merkataritza eta Turis- mo Sailak merkatariei zuzen- dutako ikastaroak antolatuta ditu. Doakoak dira, eta infor- matika eta Internet-i buruz- koak. Herrian bertan egiteko aukera izango dute merkata- riek, baldin eta hamabi lagu- neko taldeak osatzen badira. Izena eman eta informazioa jasotzeko 943 16 06 73 telefo- no zenbakira deitu.



Arraza askotako abelgorriak eramango dituzte bertara ganaduzaleek. L. MONTES

koak jarriko dituzte salgai azo- ka gunean. Hala, urrixak eta idiskoak erosi nahi dituztene- tzat diru laguntzak emango ditu Foru Aldundiak —ikus ko- adroan erositako buru bakoit- zeko emango dituzten diru la- guntzak—.

Lehiaketa bukatu ondoren, antolatzaileek adierazi dute bost bigara zozketatuko dituz- tela liburu genealogikoetan ga- nadu inskribatua duten eta gaur Ferialekura joaten diren ganaduzaleen artean, antola- tzaileen, hots, Tolosako Udala- ren, Kutxa Fundazioaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesean.

**Parte-hartze handia**

Orain urte asko hasi ziren Tolo- san gazta eta abelgorri lehia- ketak egiten, eta urtetik urtera jende gehiago erakartzen du- ten azokak direla aitortu diote Hitzari bateko eta besteko an- tolatzaileek. «Tolosaldekoak bakarrik ez dira biltzen; asko eta asko dira eskualdetik kan- po etortzen direnak ere». Azoka guneetara lehiakide gisara joaten direnetako asko kanpo- koak dira, halaber. Eta baita epaimahaiaren saria jasotzen dutenak ere. Iazko gazta lehi- aketan, esaterako, kanpotarrak izan ziren saria eraman zuten

guztiak: Mutiloara joan zen le- hen saria, eta Zerainera, Azpei- tiara, Zegamara eta Gereñura bigarrena, hirugarrena, lauga- rrena eta bosgarrena, hurre- nez hurren. Tolosaldeko lehen sailkatua Orexako Oihan Txiki kooperatiba izan zen.

Abelgorri lehiaketan Alegia- ko Gorotzena baserriko Loren- zo Iturriozek lortu zuen lehen saria bi urte eta lau urte eta erdi bitarteko Suitza arrazako buruekin, eta Aldabako Lope- tegi baserriko Lopetegi elkar- teak bi sari lortu zituen Limou- sina arrazakoeren artean: hiru urte eta lau urte eta erdi arte- koen sailean lehenengoa eta lau urte eta erditik gorakoetan bigarrena. Gaur ere estua izan- go da lehia partaideen artean.

**iragarki laburrak**

**SALGAI**

**Autoa.** Ford Mondeo autoa salgai. 2 urtekoa. 11.000 euro. Telefonoa: 635 75 19 72.

**LANA**

**Tolosa.** Pertsona euskalduna behar da Tolosan goizez bi haur zaindu eta ebeko lanak egiteko. 943 67 27 96 eta 652 72 62 88.

**Berastegin.** Solfeo eta akordeoi irakaslea behar da Berastegin,

eskolaz kanpoko jardueretarako. Telefonoa: 660 02 91 96 (Aranbxa).  
**Neska.** Neska euskalduna behar da ume bat zaindu eta ebeko lanak egiteko. Telefonoa: 626 86 89 14.

**ESKAERA**

**Gasteizera joateko.** Astelehenetik ostiralera, eguerditan, Tolosatik Gasteizera autoz joateko norbait behar dut. Gasteiak erdibana. Telefonoa: 600 05 42 27.



**Salgai (Tolosa).** Pisua Gorosabel 40ean. Ganbara eta garajearekin.  
**Salgai (Tolosa).** Baju komertzialak Belate eta Nagusia kalean.  
**Alokatzeko (Tolosa).** Lokal komertziala Erremontari kalean, Pizzeria edo bokolategia jartzeko egokia.  
**Alokatzeko (Tolosa).** Bulegoa Korreo kalean 1.pisua igogailuarekin  
**Alokatzeko (Tolosa)** . 145m<sup>2</sup>-ko bulegoa Larramendi kalean.  
**Alokatzeko (Tolosa).** Garaje irekiak Larramendi eta Araba Etorbidean.  
**943 65 17 13 / 677 46 09 16**

ASTEASU ▶ KIROLA

# Haurren II. Ziklo-kros proba arrakastatsua

Hirurogeita bost haur eta gaztetxok hartu zuten parte, sei maila ezberdinetan, Lamitegin prestatutako zirkuituan



Gogotsu ekiten zioten partehartzaileek proba hasieran. I.GARCIA

IMANOL GARCIA

Lamitegiko zirkuitua haurrez eta gurasoz bete zen atzo arratsaldean, Haurren II. Ziklo-kros Proba arrakastatsua egin baitzen, udazkeneko kultur jardunaldien egitarauaren barruan. Guztira hirurogeita bost haurrek hartu zuten parte, sei maila ezberdinetan. Txikienean, bost urte beherakoetan, Izarne Maioz izan zen irabazlea. Bost eta sei urte dituztenen artean, Peru Larrañagak irabazi zuen proba. Zazpi eta zortzi urtekoetan, Zuhaitz Roteta. Bederatzi eta hamar urtekoetan, Jon Flores. Hamaika eta hamabikoeetan, Hodei Gil. Adin ezberdinetako nesken arteko proba bat ere egin zen eta Maria Iraolak irabazi zuen. Partaide guztiek jaso zituzten dominak. Gurasosen arteko lagunarteko lehiaketa ere egin zen.

«Festa herrikoa eta polita suertatzen da eta haurrek asko gozatzen dute eta», azaldu du Maite Iraolak, Kultur Etxeko arduradunak. «Hamabost egun lehenago prestatzen dugu zirkuitua eta gaztetxo ugari aritzen dira ilusio handiarekin entrenatzen».

VILLABONA-ZIZURKIL ▶

## Pultsularien Sub-15 Txapelketa, gaur Olaederran

Halterofiliako Euskadiko Sub-15 Txapelketa egingo da gaur, 11:15ean hasita, Villabonako Olaederra kiroldegian eta bertan Danena-Olaederra Halterofilia Taldekoekin eta bertan Danena-Olaederra Halterofilia Taldekoekin parte hartuko dute. Guztira hogeitahiru pultsulari inguruk parte hartuko dute Euskal Herriko zenbait talde ordezkatuz. Parte hartuko duten pultsularien artean aipatzekoak dira Jon Sasiain —hamabost urteko zizurkildarra, Euskadiko Txapelketa eta bere kategorian errekor berriak ezarri dituena— eta Jon Lopez —hamabost urteko zizurkildarra eta Espainako Sub-15 eta Sub-17 maiolan hirugarren postua lortu duena—. Eguraldiak laguntzen badu, kiroldegiko frontoian egingo da txapelketa. Aldiz, txarra eginez gero, kiroldegiko pistatik ikusi ahal izango da pultsularien lehiaketa.

ANOETA ▶

## Ordutegi aldaketa egingo da urrian KZgunean

Anoetako KZgunean ordutegi aldaketa izango da urrian. Goizez irekiko da 9:00etatik 13:00etara. Bestalde, Interneteko ikastaroetan izen emate epea irekita dago hamasei urtetik gorako herritar guztientzat. Ikastaroez gain, bi mintegi emango dira, urriak 5ean 11:00etatik 13:00etara, Adobe Acrobat Reader eta urriak 14an 9:00etatik 11:00etara Kutxanet bidez eragiketarako egitea. Interesatuak KZgunetik pasa daitezke edo deitu 943 65 48 57 telefonora.

IRURA ▶

## Haurtzaindegia matrikulatze epe berri bat ireki du

Irurako Haurtzaindegia matrikulatze epe berri bat ireki du eta interesa duenak urriaren 28a arte izango du aukera. Horreterako, haurtzaindegira bertara joan behar da goizeko zortzietatik arratsaldeko lauak arteko ordutegian. Aipatutako epe honetan izena ematen dutenek datorren urteko urtaririlan hasi ahal izango dituzte haurrak eramaten haurtzaindegira.

IRURA ▶ SAN MIGUEL JAIK

## Scalestrik lasterketak eta ezkonduen dantza soka, jaien azkenaurreko eguneko ekitaldi nagusiak

Herensugea gauerdian erreko da eta biharko Jubilatuen Egunaekin amaituko dira jaiak

I. GARCIA

Atzoko ekitaldiez gozatu eta gero, gaurkoan ere egun guztian zehar izango da zer egin

eta ikusi. Aipatzekoa da aurten egingo den ekitaldi berria: bi scalestrik pista ipiniko dira frontoian laisterketak egiteko. Hamar urtetik gorako haur eta

gazteek goizean izango dute aukera eta arratsaldean gaztetxoek eta helduek.

Ezkonduak protagonista izango dira, dantza soka egingo dutelako San Miguel Plazan, gero bazkaltzera joateko Aizpurua jatetxera. Udaletik gogorarazten dute haurtzaindegi zarbitzua izango dela. Gauerdian herensugearen erretzea egin arren, biharko jubilatuen zako ekitaldiak antolatuta dira.

GAUR ▶

11:00. Haur Parkea.  
12:00. Scalestrik laisterketak gazteentzat frontoian.  
13:30. Ezkonduen dantza soka, San Miguel Plazan.  
14:30. Ezkonduen bazkaria.  
17:00. Baserriko jolasen jai.  
19:00. Scalestrik helduentzat.  
23:30. Akelarre taldea.  
24:00. Herensugea erretzea.

**MIKELAN**  
EZAGUTU GURE ERAKUSKETA BERRIA!  
Laskibar industr. 19 • 3-01 pabilioia • IRURA • Tel.: 943 69 22 65  
Faxa.: 943 69 43 89 • mikelan.sl@euskalnet.net • www.euskalnet.net/mikelan.sl

- Gurpil-aukiak
- Ohe artikulatuak eta koltxoiak
- Bainurako laguntza teknikoak
- Osakidetzarekin hitzarmena
- Mantenimendu tailerra

**zuhaitzi**  
Egurrezko leihoak, kontraleihoak, ateak eta eskailerak neurria

**JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ**

Tel.: 943 67 36 11 • Faxa: 943 67 36 55  
"Cuatro vientos" Industrialdea, 1  
Txarama auzoa • 20491 Leaburu

**JOSEAN**  
ITURGINTZA

- iturgintza
- berogintza
- gasa
- gasoilezko instalazioak

Kale nagusia, 30 • 943 69 33 52 • IRURA • 656 41 68 08 • 656 41 69 30

**Carpintería ATARI, S.L.**  
AROTEGIA

Arotzegi mekanikoa. Obrak eta berrikuntzak.  
Eskailera eta altzariak neurria. Etxebizitako eta likal komertzialeko arotzgia.

E-maila: catari@euskalnet.net  
Ibaiondo Industriagunea, 7 • 20271 IRURA • Telf.: 943 69 01 40 - Faxa: 943 69 34 29

BALIARRAIN ▶ IBIURKO URTEGIA

# Baliarrainera joateko bide berria maiatzean amaitzea espero dute

Ibiurko urtegiko lanak direla-eta itxita geratuko da egungo errepidea; bide berriak 1.124 metroko luzera izango du



Ibiurren egingo duten urtegia zeharkatuko duen bidea egiteko lanean ari dira. O. ESKITXABEL

## OLAIA ESKITXABEL

Otsailaren 17an Ibiurko urtegiko lanei hasiera emateko ekitaldia egin zuten; urtegiko lehenengo harria jarri zuten egun horretan. Geroztik, makina eta langile ugari ikus daitezke bertan. Zarata ere lanak martxan jarraitzen dutenaren adierazle da.

Egun urtegiko lanak gauzatzeko lanak bi puntutan kokatzen dela zehaztu du Felipe Romanek, Confederación Hidrográfica del Norte-ko ingeniari buruak.

Urtegia joango den zonalde-

an gero urtegia zeharkatuko duen bidea egiten ari dira. Lan hori «aurrikusita dagoen epean, hau da, hilabete gutxi barru» amaituko dutela zehaztu du Romanek. Hormigoizko azpiegitura, urtegia iristeko sarbideak... egiteko ere lanean dihardute.

## Bide berria

Baliarrainera iristeko bidea itxita geratuko da Ibiurko urtegia dela-eta. Errepide berria egiten hasiak daude; Ikaztegi-tako Ola auzoan, Eredu-Enea lantegiaren atzekaldetik herri-

raino luzatuko da bidea: «1.124 metroko luzera eta %10,5eko gehieneko aldapa izango du bide», azaldu du Felipe Romanek.

Ondo bidean, lan horiek 2005eko maiatzean amaitzea espero dela ere aurreratuko du.



Baliarrainera joateko bidea Ola auzotik abiatzen da. O. ESKITXABEL

IKAZTEGIETA ▶

## DV Pilota txapelketako partidak, bihar

XIII. DV Pilota Txapelketako bi partida jokatu dira bihar Ikaztegi-tako pilotalekuan; senior mailako partidak izango dira biak. Olae-txeak eta Tirapuk Matuteren eta Gomezen aurka jokatu dute; ondoren, Zazpi-Itturri taldeko Baez anaiek jokatu dute eta Azagirre eta Huarte izango dituzte aurkari. 11:30ean hasiko da lehenengo partida

ABALTZISKETA ▶

## Ariketa fisikoaren garrantzia izango dute hizpide

Adina dela-eta sortzen diren arazoei aurrea hartzeko gomendioak entzuteko aukera izango dute abaltzisketarrek datorren asteartean, urriaren 5ean, Kultur Etxean izango den hitzaldian. Bizimodu osasungarriago bat egitera begira, gorputzari eta adimeneri mesede egingo dioten gorputz-ariketak proposatuko dira bertan; hitzaldia 16:00etan hasiko da.

IKAZTEGIETA ▶



Atzo goizean abiatu ziren Fischer zirkoko kideak. O. ESKITXABEL

## Fischer zirkoa, ikaztegi-tako zelaian

Astebete inguru egin dute Fischer zirkoko kideek ikaztegi-tan; pasa den astelehenean, irailaren 27an, emanaldia eskaini zuten Legorretan eta aurreko zein ondorengo egunak bertan igaro dituzte. Irudi bitxia. Kamioiak ezezik, astoa, akerra, pottokak... ikus zitezkeen zelaian. Atzo goizean, dena jaso eta Ordiziara abiatu ziren beste emanaldi bat eskaintzera.



## BERASTEGI ▶

Mantenimendu  
gimnastika eta  
aerobik-a

Datorren asteartean, urriak 5, hasiko dira mantenimendu gimnastika eta aerobik ikastaroak eskolako gimnasioan. Gimnastika 18:00etatik 19:00etara izango da eta aerobik-a 19:00etatik 20:00etara. Bigarren saioa ostegunean egingo da eta asteartean zehaztuko da ordua.

## IBARRA ▶

Pilota ikastaroei  
hasiera emango  
zaie astelehenean

Astelehenean, urriaren 4an hasiko dira pilota ikastaroak Ibarako kiroldegian. Astelehena, asteartea eta ostegunetan izango dira ikastaroak. 8-9 urte bitartekoek 17:00etatik 18:00etara, 10-11 urtekoek 18:00etatik 19:00etara eta 12-13 urte dituztenek 19:00etatik 20:00etara izango dute ordua. Izen-ematea Ibarako kiroldegian egingo da.

## IBARRA ▶

Ibarrak Arnedon  
jokatuko du  
gaurko partida

Ibarra areto futbol taldeak Virgen del Vico errioxarren aurka jokatuko du gaur Arnedon 19:00etan. Partidarik irabazi ez duen talde bat izango du parean Ibarrak, eta aurrekoa irabazi ondoren gogotsu ekingo dio.

## IBARRA ▶

Bihar mendi  
irteera Ibaratik  
Oriora

Ibarako Haitzetan Raju mendi taldeak mendi irteera antolatuko du biharko Ibaratik Oriora animatzen den ororentzat. Ibarako Errotatxo kafetegitik (*Txumitxa* taberna ondoan) aterako dira 08.30ean 4 orduetan Kilometroetara heltzeko asmoz.



## Giza katea atzo Ion Mintegiagaren alde

**IBARRA ▶** Atzo bi urte bete ziren Ion Mintegiaga ibartarra espetxeratu zutela eta giza katea egin zuten Ibarako plazatik herriko sarreraraino. 7 egunez inkomunikaturik egon zen atxilotu zutenean eta dispertsaturik egon da bi urte hauetan, lehendabizi Soto del Real-en eta egun Alcalan. Lehenengo gradua aplikatu zioten eta bi ordu goizean eta bi arratsaldean ditu atsedena zeldatik kanpo.

Ikasketak burutzen hasi zen, baina arazoak izan zituen legediarekin eta ondorioz aurtengo ikasturtea galdu du. Senide eta lagunek bisitekin dituzten arazoak salatu dituzte, hauek astean zehar izaten dira eta lan orduak galtzea baitakar. Bi urte hauetan ez diote epaiketarik egin, eta ondorioz, beste bi urtez luzatu dute kartzelaldia, une honetan epaiketa noiz egingo dioten itxaroten ari delarik. INIGO TERRADILLOS

## BERASTEGI ▶ KULTURA

'Aidanen' aldizkariak  
argia ikusi du aurtengo  
lehenengo aldiz

Aurtengo jaietan kaleratu zuten Berastegiko urtekaria; herritar askok ustekabez jaso zuten lehenengo alea

## INIGO TERRADILLOS

Pasa den abuztuaren kaleratu zen lehen aldiz Berastegiko urtekaria *Aidanen* izenarekin. Orain urtebete Aldin kultur taldea sortu zen Berastegin eta beste hainbat proiektuekin batera urtekari bat sortzearena zuten helburu bezala. Hamabi lagunek osatzen dute kultur talde hau eta beraiek izan dira kolaboratzaile batzuekin batera urtekaria egin dutenak.

Berastegin urtean zehar izan diren berriak, bertako pertsonaia ezagunei elkarrizketa, historia, kirola, argazki bilduma, literatura, errezetak eta horoskopoa irakurri daitezke, besteak beste *Aidanen* aldizkarian. Herritarren harrera oso ona



Berastegiko jaietan kaleratu zuten lehengo alea. AMAIA BELAUNZARAN

izan dela dio Maria Jesus Labaien Aldin kultur elkarteak. «Herritar askok ez zuten urtekari berri honen berri eta ustekabez jaso zuten lehenengo alea herriko jaietan», adierazi du aldizkariaren lan taldeko kideak.

Urtekariaren izena, berriz, Berastegin ezaguna da eta «esaten da» esanahiarekin erabiltzen da.

Bestalde, datorren urteko aleari begira herritarren kolaborazioa ere eskertuko litzatekeela diote Aldin elkarteak, «urtekaria denen artean egingo den gauza bat izatea nahiko genuke-eta».

Berastegiko herritarrek egindako lana da, aspaldiko ohiturak eta gaur egungo berriak kontatuz Berastegi eza-gutzeko aukera ematen duena.

## TELEFONOAK ▶

## LARRIALDIAK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 69 24 23

**Berastegi-Elduain.** Medikua: 68 33 61

**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34

**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29

**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Lizartza.** Medikua: 68 20 77

**Orendain.** Medikua: 65 55 95

**Orexa.** Medikua: 68 22 28

## Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Iurrumendi egoitze: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

## Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

## GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Leitza autob.: 948 221015

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

## KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Tipi tpa ald.: 948 631888

▶ Txolarre Irratia: 69 80 38

▶ Karrape Irratia: 948 610914

## EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur.** Olarreaga J. Martin Jose Iraola 10 (Tolosa). 943 67 24 38 Plaza M., Elbarren 36, (Leitza). 112.

## TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.

tolosaldean\_publici@tolosaldeko

hitza.info

**Tolosa.** 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

**Villabona-Aizt.** 687 41 00 22.

villabona\_aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

**Anoeta-Idia.** 687 41 00 22

anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info

**Ibarraldea.** 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

**Alegialdea.** 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

**Leitza-Idia.** 687 41 01 18.

leitzaidea@tolosaldeko-hitza.info

NATURAL -  
NATURALAK



- Era naturalean eginak
- Gaztak, yogurtak, txorizoak urdaiazpikoak, odolkiak eta beste hainbat produktu.

Mahala baserria - 20491 LEABURU • Tel.-Faxa: 943 673 499 • Tel. Mug.: 689 805 633

## LEITZA ▶

**Bihar etxean dute partidua Aurrerakoek**

Bihar arratsaldean, etxean jokatu du futbol partidua Aurrera Kirol Elkartek, 17:30ean. Txanda honetan, Arkixkil futbol zelaian Iruñerrikoa den Ecuavarrar taldea hartuko du. Berezitasun modura, aipatu beharrekoa da, talde hau jatorriz Ekuadorrekoak diren, baina herrialdean bizi diren ekuadortarrek osatutako futbol taldea dela.

## LEITZA ▶

**Euskara Batzordea da asteartean**

Hurrengo asteartea, hilak 5, Euskara Batzordea burutuko da, Aurrera elkartean, 18:00rtan. Besteak beste, HITZA egunkaria, udalekuak eta ikasturte honetarako planaz ariko dira hizketan. Interesa duen guztiarentzat, bertan parte hartzeke deialdi zabalago egina.

## LURRIKARA ▶

**Osteguneko lurrikara nabaritu da herrian**

Ostegunean, Lizoainen epizentroa izan zuen 3,8 intentsitateko indarra izan zuen beste lurrikara, gure eskualde honetan ere nabaritu zen. Bazkalordua pasatxo, 15:00ak aldera ziren, lurra mugimendua nabaritu zenean. Mugimendu hau, eserita gaudenean, norbait aukia mugituko baligu bezalakoa da, balantza tiki batzuk: konturatzera, bukatua eta «zer zen hori?» galdetzea, arrunta.

## LEITZA ▶

**Erlotako Guraso Elkartearen batzar orokorra**

Hurrengo asteartean, 16:30ean burutuko da *Denok Bat* Guraso Elkartearen batzar orokorra, Erlotako jan-gelan. Aurreko ikasturteko konatuak, zinema, eskolaz kanpoko jarduerak (pilota, buztina, igeriketa, eho-ziriak, futbola) eta beste izanen dituzte aztergai. Izena emateko baliatu daiteke aukera.

## LEITZA ▶ GIZARTEA

**«Gerra, boterearen instituzio bat da»**

Horrelaxe definitzen du Luzio Tabarrek gerra eta hori egiaztatzen duten hainbat ezaugarri eman ditu ezagutzera

JAIONE ASTIBIA

**G**erra. Gerrak munduan. Zergatiak. Eragileak. Interesak. Armen merkatura. Arlo hauetaz guztietaz aritu zen osteguneko hitzaldian Luzio Tabar. Luzio, horrela deitza nahiago du eta, Iruñeko Kontzientzia Eragozpeneko Taldeko kidea da, «han dagoen talde antimilitarista bakarra. Lehen intsumisio garaian eta, bazeuden gehiago baina» argitu zuenez, eta hasieran aipatutako arlo horietan aditua, eskuartearen zuzeneko informazioa duena, eta horren jakitun bertaratutakoak: «esate baterako hemen Alardea dela eta ez dela, sortzen diren iseka, egonezin, haserre, istilu, famili haustura, gorrotoak ikusita, nik zu hil edo zuk ni, beste aukerarik gabeko egoera gogor batean, ze jokabide izanenukeen inork ez daki», zioen eta bera behinik behin, gerra bizi duten herritarrekiko balorazio morala egitea ez zela ausartzen adierazi zuen.

Hasteko eta behin, gerra egoera batean gutako bakoitzak zer egiten zukeen erreflexio egitera gonbidatu zituen bertaratutakoak: «esate baterako hemen Alardea dela eta ez dela, sortzen diren iseka, egonezin, haserre, istilu, famili haustura, gorrotoak ikusita, nik zu hil edo zuk ni, beste aukerarik gabeko egoera gogor batean, ze jokabide izanenukeen inork ez daki», zioen eta bera behinik behin, gerra bizi duten herritarrekiko balorazio morala egitea ez zela ausartzen adierazi zuen.

Baina bai, gerra horiek eragiten eta sorrarazten dituzten estatuekiko. Beren boterea mantendu edo lortzeko eta dirua irabazteko helburuz antolatzen dituztelako gerrak. «Gerra edo beraiek deitzen dieten moduan, konfliktu armatueta, horrekin zeinek irabazten duen ikusi besterik ez dago, beti batzuen interesen arabera, zein diren egiaztatzeak», adierazi zuen.

Gerren sustaketa honetan, estatuen aliaturik eraginkorren modura aipatu zituen komunikabideak, batez ere horrela behar izanez gero, jende arruntaren artean gorrotoa pizteko eta gerren benetako kausak mozerrotzeko omen duten gaitasunagatik: Jugoslavian sekula guztian elkarrekin bizi iraun zuten erlijio desberdinetako jendeak elkarrenganako xaxatu zituzten, Afganistanen taliban emakumeei burka inposatzen zieten esanez... Baina berak zioenez, batean, «Alemania aldeko eremuan



Tabarrek esandakoak adi-adi jarraitu zituzten bertan bildutakoek. J. A.

gainerakoan baino askoz ere 'aurreratuago', Europako ekonomia kapitalistari so zeuden, eta auzokoari bere interesak babesteko komeni zitzaion lurralde harren 'independentzia', gero berak maneiatzeko» eta bestean berriz, «petrolio. Gerra bukatu eta han jarri zuten lehendakariak hartu zuten lehenengo erabakia AEBetako petrolio konpainia batera, oleodukto bat irekitzea sinatzea izan zen». «Hori horrela da eta hain lotsagabeki jokatzeko dute», adierazi zuen.

Antimilitarista taldekoek «globomilitarizazioa» deitzen

dioten fenomenoaz ere zantzu batzuk eman zituen, eraso hipotetikoei aurre egiteko aitzakian estatuek egiten duten gastu militarren igoera basatiari dagokionez eta honekin lotu zuten estatuen barne militarizazioa ere, komunikabideen kontrola (portu eta aireportuak, telekomunikabideak...), geroz eta polizia gehiago izatea... aitautuz.

Eta beste mila eredu eta informazio kontatu eta eman zuten. Berak zioenez, «informazioa izatea da garrantzitsua. Hori izanik, jendeak, herritarak, kontzientziaz jokatzeko du».

**New Yorken, irailaren 11n**

2001eko irailaren 11n Dorre Bikien aurka egindako atentatuaren inguruan, geroztik jakindako eta egiaztatutako hainbat daturen berri eman zen, besteak beste hitzaldian.

Atentatu haien erantzule zuzen egin zuten Bin Laden, esate baterako, Bush familiaren adiskide mina izatez gain, CIA delakoaren agente omen zen. Urte hartako uztailean berean, New Yorkeko atentatuak baino hilabete eskas batzuk lehenago, Ladeni Katarreko ospitale batean ebakuntza egin omen zioten eta bere gelako atea, CIAko agenteek zaindu omen zuten. Atentatuaren ondoren «desagertu» egin zen eta ez zuten inon ere aurkitu. Hura bilatu bitartean, Afganistan osoa txiki-txiki egin zuten.

Pentagonoaren aurka leher-tu zen («bioia»), ez omen zen hala, misila baizik. «Hain ba-

bestuta dagoen eremu baten aurka, nor bota dezake misilik?» galdera egina dago.

Justu egun batzuk lehenago, abioi konpainia batzuk, akzioak saldu zituzten. «Zergatik?».

Eta dorre horietan, juduen enpresa batean lanean ari ziren langileei, bezperan esan zieten, biharamonean lanera ez joateko. «Nolaz?».

AEBetan orain desklasifikatu berri dituzten duela 50 urteko agirietako batean ageri denez, Kuban sartzeko helburuz, CIAk proposatutako ideia izan omen zen, zibilez betetako bi abioi lurrera erortaraztea, errua Kubari egotziz. Orduan ez zuten burutu.

Gertakari latz haien aurretik benetan gertatu ziren jazoerak dira guztiak, Tabarrek zioen moduan, ordea, «kasualitatezkoak? bai? ez?». Hori, akaso, noizbait argituko da. ◀

## LEITZA ▶

**Kaskagorren pentatlona gaur hasiko da 15:30ean**

Kirola ez ezik, festa egiteko aukera izan da bertan parte hartzen duenarentzat

J. ASTIBIA

Gaur 15:30etik aurrera burutuko da Kaskagorren Pentatlona modura ezagun den festa Leitzan. Egia esan, duela hamabost urtez geroz egiten duten lagun arteko festa-ekitaldi hau, abiatu, Leitzatik egiten da, baina Donostiatik Uitzirainoko herri guztietan zehar ibiltzen dira.

Eta zertan ibiliko eta, pentatloi berezia da hau. Bost froga desberdin baititu, guztiak edota nahi direnak aukeratu daitezke egiteko, eta ez da lehiaketa, lagun arteko jostaketa eta festa egiteko aitzakia baizik. Eta zer dute bada egiteko? Bost froga: aurrenekoa Donostiako Ondarretan, itsasoaren arabera, gabarroitik itzulia egitea; bigarren, handik Leitzako Mikelteetaraino bizikletaz etortzea; hurrena, mugatik Gaztañaganeko atariraino laisterka; laugarren, Peritzan afaria; eta azkenik, Uitziko festak. Hasi noiz egiten den jakiten da, baina bukatu... Denborarik hobereana, kasu honetan, gustura egindakoa izan da, noski.

Erdi eta erdi, donostiar eta leitzarrez osatua dago, 60-70 laguneko taldea izanik, eta bakoitzak nahi duen zatia egiten du, eta nahi duen moduan gainera. Horrelako kasuetan gertatu ohi denez, hemen ere azken frogak izaten omen dira jendetsuenak, izan ere, mahairan eta festa giroaren inguruan, zein ez da trebe eta azkar? Apustu baietz!

**www.tolosaldeko hitza.info**

▶ sar zaitzez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbiztuak, zorian agurrak...

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Tolosa.** XVIII. Gazta Lehiaketa Beotibar pilotalekuan goiz osoan zehar. Lizardi elkarteak antolatuta.

**Tolosa.** XXXV. Abelgorri Lehiaketa Ferialekuan goiz osoan zehar. Foru Aldundia, Udala eta Kubak antolatuta.

**Tolosa.** Udaberri dantzari taldeak 6 urtetik aurrerako haurrentzako euskal dantza tailerra antolatu du, larunbatero 10:00etatik 11:00etara Igarondo igerilekuko kiroldegian. Izen-ematea: Udaberriren egoitzan (Igaralde 6) urriaren 6an (20:00-20:30).

**KULTUR ASTEA**

**Bidegoian.** 11:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara haurrentzako jolas parkea; 16:00etan, marrazki lehiaketa eta 18:00etan Poxpolo eta Mokolo pailazoaren emanaldia; ondoren, txokolatada.

**KILOMETROAK 04**

**Amezketan.** Autobusentzat izen ematea herriko tabernetan. Gazte Taldeak antolatuta. Irteera 9:00etan plazaatik.

**Ibarra.** Izen-ematea Karlatz eta Zubiaurre tabernetan. Gazte Asanbladak antolatuta.

**Leitza.** Torrea eta Gaztañaga tabernetan eman daiteke izena 8 eurotan.

**JAIK**

**Irura.** Haur parkea plazan 11:00etan; Scalextric lasterketak frontoian 12:00etan; ezkonduen dantza soka plazan 13:30ean; ezkonduen bazkaria Aizpurua jatexean 14:30ean; herri kirol eta baserriko jolasen jaia Kulkiren eskutik plazan 17:00etan; Scalextric lasterketak 19:00etan; dantzaldia Akelarrekin 23:30ean; herensugea erretzea 24:00etan eta berriro dantzaldia.

**ZINEMA**

**Tolosa.** Garfield. Leidor zineman 19:30ean eta 22:30ean.

# HITZA, olatu berrian

**UROLA-KOSTA ▶ Zarautz eta Orio artean bihar ospatuko da aurtengo Kilometroak; 'Olatu berria'-n HITZA ere egongo da**

LANDER GARRO

**M**odan egoteko, edo, orain esaten den bezala, *boladan* egoteko Kilometrotan egon beharra dagoela gauza jakina da. Euskaltzaleontzako derrigorrezko hitzordua da, batez ere gipuzkoarrentzat. Hori kontuan hartuta, HITZAK ere bertan egoteko erabakia hartu du. Horrez gain, nola ez, euskararen aldeko aldarria eta lana dira Kilometroak eta HITZA batzen dituen arrazoiak, ezin azken hau ahaztu; zoritxarrez, lan egiteko hamaika arrazoi dago oraindik ere.

Bihar ospatuko da Kilometroak jaia, Orio eta Zarautz artean. Oteiza Lizeo Politeknikoa, Orioko Herri Ikastola eta Salbatore Mitxelena Ikastola aritu dira antolakuntza lanetan eta, 15 kilometroko ibilbideaz gain, hamaika ekitaldi asmatu dituzte euskaltzaleen gozamenak egiteko. 'Olatu berria' lelopean Urola-kostako zelaia, mendateak eta kaleak algaraz beteko dira, beraz, bihar goizetik.

**Bi mahai**

HITZAK, esan bezala, ezin zuen hitzordutik kanpo geratu, eta aipatutako ikastetxeekin akordioa lortu ondoren, festan egongo da.

Materiala saltzeko eta harpi-



HITZA-KO elastikoek arrakasta aipagarria lortu dute; bihar salgai egongo dira Kilometroetan. L.GARRO

dutzak egiteko mahaiak paratuko ditu HITZAK Orion eta Zarautzen; bat herri bakoitzean. Orion autopistaren azpian paratuko du mahaia, eta Zarautzen, berriz, malekoian, hondartzaz baxterrean. Bertan, besteak beste, horrenbesteko

ospea irabazi duten elastikoak salduko dira

UROLA-KOSTAKO HITZA oporretan dago udako lan gogorretik atsedean hartzeko, baina egun horretarako egunkaria kaleratuko du; arratsaldean, berriz, Kilometroen inguruko zenbaki

berria aterako du, zirkuitoan zehar banatzeko.

Jaiari babesa emateko, bi kontu zenbaki zabaldu dituzte antolatzaileek: 2101 0381 03 0011146305 (Kutxa) eta 3035 0063 89 0630049813 (Euskadiko Kutxa).

**ZORION AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**

Juan Colmenero.

Gaur 92 urte. Zorionak etxekoan partetik.



**URTE ASKOAN**

Nagore Amenabarro Iraola.

Gaur 8 urte. Zorionak aitabxo, amabxo eta Sararen partetik.



**URTE ASKOAN**

Amaia Aramendi (Getaria).

Zorionak eta 26 muxu handi Irurako dinamizatzailearentzat.

**HITZA,**  
 zorion agurren  
 tartea

HITZAren egoitzetara:  
 Araba etorbidea, 5 behe  
**TOLOSA**  
 Udaletxeko bulegoa  
**LEITZA**

Mesedez, argazkia bi  
 egun lehenago ekarri.  
 Mila esker!



**Pausoka Akademia**

- Lehen hezkuntzatik batxilergora bitarteko ikastaroak
- Hizkuntzak: Ingelera, Italiara, Arabiera Thamer eta Itsaso irakasleak

Martin Jose Iraola, 2 behe • TOLOSA • mug.: 686971962 • Tel.: 943 67 24 48